Usurbilgo Udala

# 3. ERANSKINA

INGURUMENA

3.1. Oinarri espezifikoak. Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

## 1.Xedea

Eranskin honen xedea da Usurbilgo Udalaren 2021eko ingurumen dirulaguntzen oinarri erregulatzailea ezartzea, norgehiagoka erregimenean 2020. urtean zehar ingurumen arloan egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei zuzenduta.

## 2. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.61.00.480.172.00.01

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

## 3. Aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria

Oinarri orokorretan zehaztutako lekuan eta dokumentazioaz gain, ingurumen alorreko dirulaguntza eskatzeko ekintzari buruzko fitxan garatu den jarduerak suposatzen dituen ingurumen onurak ahalik eta modu objektiboenean baloratzea ahalbidetuko duen informazio gehigarria aurkeztuko da.

## 4. Baloratzeko irizpideak

Diru-laguntzak emateko hurrengo balorazio irizpideetan oinarrituko da:

# ANEXO 3

MEDIO AMBIENTE

3.1. Bases especificas. Subvenciones para desarrollar proyectos medio ambientales.

## 1. Objetivo

El objetivo de este anexo es establecer las bases reguladoras de las subvenciones ambientales del Ayuntamiento de Usurbil del 2021, en régimen de concurrencia competitiva, destinadas a organismos tanto públicos como privados y a personas que lleven a cabo sus proyectos en el ámbito ambiental a lo largo del año 2020.

## 2. Cuantía de la subvención

La cuantía destinada a la subvención no superará las cantidades especificadas en la partida que se indica a continuación.

El gasto irá a cargo de la presente partida presupuestaria:1.61.00.480.172.00.01

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. En caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación y concurriese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Usurbil.

## 3. Documentación complementaria a presentar

Además de la documentación y lugar especificados en las bases generales, en la ficha de solicitud de subvenciones ambientales se presentará la documentación que se estime necesaria para la valoración más objetiva posible de los beneficios ambientales que supone la acción desarrollada.

## 4. Criterios de valoración

Las subvenciones se otorgarán en base a los siguientes criterios:

| | |
|---|---|
| Gehienez ere kostu osoaren %50 a izango da eta eskatzaile bakoitzari gehienez 2.000 € emango zaizkio. | Como máximo se subvencionará el 50 % del coste de la actividad subvencionada, con un máximo total por solicitante de 2.000 €. |
| Ekintzak horrela eskatzen badu, aurrez beharrezko baimenak izan beharko ditu. | Si la acción a subvencionar así lo requiere, deberá disponer de las autorizaciones previas pertinentes. |
| Ondokoak izango dira lehentasunezko ekintzak: | Tendrán prioridad las siguientes actividades: |
| — Pobrezia energetiko egoerak arintzea. | — Paliar situaciones de pobreza energética. |
| — Energiaren kontsumoa murrizteko egindako inbertsioak. | — Inversiones realizadas para reducir el consumo de energía. |
| — Usurbilgo Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren helburuekin bat datozen ekintzak, bereziki plan horretan proposatutako ekintzak betetzeko iharduerak. | — Actuaciones acordes con los objetivos establecidos en el Plan de Acción para la Energía Sostenible de Usurbil, y en concreto, las actuaciones previstas en dicho plan. |
| — Usurbil herrian energia ez berriztagarriaren kontsumoa energia berriztagarriaren kontsumoarekin ordezkatzeko ekintzak. | — Actuaciones orientadas a sustituir el consumo de energía no renovable por energías renovables. |
| — Usurbil herrian energia nuklearra ez kontsumitzeko lagunduko duten ekintzak. | — Actuaciones orientadas a disminuir el consumo de energía nuclear. |
| — Hondakinen sorrera murrizteko eta sortzen diren hondakinen birziklapena bultzatzeko ekintzak. | — Actuaciones que impulsen la prevención y reciclado de residuos. |
| Horrelako egitasmoak laguntzeko esleipena eta gero, dirua geratuko balitz, ondoko beste ekintzak izango dute lehentasuna: | Una vez subvencionadas este tipo de actuaciones, si hubiera cuantía económica suficiente, también tendrán prioridad las siguientes actuaciones. |
| — Usurbilgo ondare naturala ezagutzeko eta babesteko ekintzak. | — Actuaciones orientadas a profundizar o conservar el patrimonio natural de Usurbil. |
| — Baliabideen kontsumoa murrizteko ekintzak. | — Actuaciones orientadas a reducir el consumo de recursos. |
| — Usurbilgo airearen kalitatea hobetzeko ekintzak. | — Actuaciones orientadas a la mejora de la calidad del aire de Usurbil. |
| Nolanahi ere, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango da. | De todos modos, cabe la posibilidad de tener en cuenta otros criterios que se consideren de interés del municipio. |
| **5. Diru-laguntza ordaintzea** | **5. Pago de la subvención** |
| Diru-laguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru-laguntzaren %100a ordainduko da. | Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el pago del 100% de la ayuda. |
| **6. Diru-laguntza justifikatzea. Aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria** | **6. Justificación de la subvención. Documentación complementaria a presentar** |
| Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazio osagarria aurkeztu beharko du: | Para justificar la subvención la entidad o persona beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación complementaria. |
| a) Egindako ekintzaren fitxa, ahalik eta zehaztuena. | a) Ficha de la acción, lo más detallado posible. |
| b) Gastuaren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztagiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei | b) Justificantes originales del gasto o fotocopias compulsadas. Los justificantes deberán corresponder necesaria y exclusivamente a los gastos |

dagozkien gastuei buruzkoak izango dira. Ez da onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak.

Fakturetan hauxe agertuko da:

- Erakundearen, elkartearen edo pertsona fisikoaren identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera
- Zerbitzuaren deskripzioa.

c) Diru sarrreren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak, egongo balira.

d) Ekintzari buruzko lau argazki formatu digitalean. (Argazki hauek udalak herri intereseko helburuetarako erabili ahal izango ditu.).

ocasionados con el cumplimiento de los fines y actividades para los que se concedió la subvención; no pudiendo admitirse como justificación los gastos realizados con otro objeto.

En las facturas se indicará lo siguiente:

- Identificación de la entidad, asociación o persona física.
- Identificación de la entidad proveedora
- Fecha de la factura.
- Actividad
- Descripción del servicio.

c) Justificantes originales o fotocopias compulsadas de los ingresos percibidos si los hubiera.

d) Con relación a la actividad, se deberá de presentar 4 fotografías en formato digital (El Ayuntamiento podrá hacer uso de estas fotografías para fines sociales).